


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 8a / 483. zenbakia



aratusteak!

**ERAZTUNA ETA
BELARRITAKOAK**
TELKAR
Ibargarai 2



**ARROSA
FRESKOAK**
GOROSTI
Matxiategi 3

**PUNTO
BLANCO
LENTZERIA**
ZUBIKUA
Barrenkalea 24



**CARAMELO
OINETAKOAK
ETA GERRIKOA**
GALARRETA
Irizar 2

**ZILARREZKO
LEPOKO ETA
ERAZTUNA**
HARAIA
Boni Laskurain 4



**LENTEJUELADUN
KAMISETA**
MIRARI
Martoko 34

**MAURICE LACROIX
ERLOJUA**
TRUDI
Ibargarai 2



**RALPH LAUREN
ROMANCE PERFUMEA**
EGILUZ
Irizar 3



**OTSAILAREN 14AN
San Valentín**

ATREBENTZIAEZPADA/ Disfrazatzen zara Aratusteetan? Noiz?



OLATZ SANZ
11 urte



ARITZ JAUREGI
15 urte




JULIA BLAZQUEZ
27 urte



JONE ALDASORO
49 urte



LEONOR BARRUTIA
68 urte



IÑIGO ANSUATEGI
34 urte

Bai, mozorrotzen naiz. Aurretan be mozorrotu bihar naiz, trapezistiana. Asko gustatzen jat mozorrotzia, urtero janzten naiz zeozena. Bi egunetan gaiñera, zapatuan eta martitzenian.

Pailazo mozorrotuko naiz aurretan. Gustatzen jat mozorrotzia, baiña martitzenian bakarrik mozorrotuko naiz. Kuadrillako danak jantzi-ko gara, eta danak pailazo, gaiñera.

Ez naiz mozorrotuko. Lehenago bai, baiña hiru urte-tik hona ez gara mozorrotzen, ez ni ezta kuadrillak-kuak be. Gaiñera ez da ambiente haundirik egoten, eta kanpora juaten gara.

Ez naiz mozorrotzen, behin edo mozorrotu izan naiz, baiña aspaldi. Ez jat gehixegi gustatzen mozorrotzia. Gaiñera, normalian ez zapatu ezta martitzenian ez gara hemen egoten.

Ez naiz mozorrotuko. Urte-tan ez naiz mozorrotzen, gaiñera. Laga neban, eta berriz hastia kostau egitten da. Dana dala, asko gustatzen jat jai hori. Oso politta da.

Ez naiz mozorrotuko. Lehenago mozorrotzen giñan, kuadrillan, baiña badie urte batzuk laga gontzala. Dana dala, kalera urtetzen gara, ambiente politta egoten da-eta.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ORDENAGAILU BAKARRA LIBURUTEGIAN Udal liburutegian ordenagailu bakarra dago, eta irakurle bat horren gainean kexatzera etorri zaigu. Haren esanetan ordenagailu bat bakarrik egoteak asko mugatzen du erabiltzeko aukera. Zerbitzu nahiko eskasa iruditzen zaio, eta inguruko beste herri batzuetan bezala eskariari ondo erantzuteko ordenagailu gehiago komeniko lirakeke./M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

Aratuste jaiak

Aratuste jaietarako egitarau zabala antolatuta du Udalak gaur hasi eta martitzenera arte.

ASTEKO BERRIAK /7

Bai Euskal Herriari

Bai Euskal Herriari herri ekimenak euskal nortasun agiria lortzeko sinadura bilketa hasi du.

KIROLAK /10

Bergarak Urolari irabazi

Preferente futbol taldeak garrantzia handiko garaipena lortu zuen zapatuan Urolaren aurka.

IRAKURLEAK MINTZO

EUSKARARENTZAT EZ DAGO JUSTIZIARIK

Bergarako epaitegian euskarak bizi duen egoera ikusirik, iaz, Jardun, AEK eta EHEK Justizia Administrazioan euskaldunon eskubideak aldarrikatzeko plataforma sortu genuen.

Gure helburua, Justizia Administrazioako eginbide guztiak euskaraz egiteko dugun eskubidea aldarrikatzea da, Administrazioaren eginbeharra baita herritar orok duen hizkuntza eskubideak bermatzea eta ho-netarako beharrezko diren bitarteko guztiak martxan jartzea.

Bergarako epaitegia, Debagoieneko epaibarrutia dela kontuan harturik eta bertako funtzionarioen %68 eta epaileen %100 erdalduna dela jakinik, Bergarako 15.041 herritarren hizkuntza eskubideak ukatzeaz gain, Debagoienako 62.450 biztanleak ere mugatzen ditu. Egoeraren larritasunaren aurrean, egoera gainditzeko oinarriak ere agertu genituen: 600 norbanakoren atxikimendua eta herriko 17 talderen eta Udalaren babesa lortu genuen, hala ere, epaitegian euskarak egoera gutxituan dirau.

Debagoienako epaibarrutiak 62.450 herritarren hizkuntza eskubideak ukatzen dituen bitartean, euskara ez da normalizazio erreala eta osora iritsiko, eta hau lortu arte jardungo du.

Inork gurekin batu eta lan egin nahi badu, astelehenero 17:00etan AEKn biltzen gara.

EUSKARARENTZAT JUSTIZIA PLATAFORMA

BERAIEK DIÑO E/ Andres Osa "Sakona"



"Xanpun"

Manuel Sein "XANPUN" bertsolari lapurtarrak agur egin digu, bihotzekoak jota. Donibane Lohizunen bizi zen azken urteotan. 1928an jaio zen Senpereko Olagarai etxean. Duela hilabete pare bat berarekin topo egin eta jardunean izan ginen.

Bizitzak eman ohi dituen gozamenak eta saminak solasgai izan genituen. Bizitzari buruzko gogoetak era xumean, naturalean eta bat-batekoan elkarri azaldu genizkion. Bere ahotik jaso genuen, bizitzak kolpe garrantzik eman ziola, alaba hiltzean, duela zortzi bat urte.

Baina egoera txarretan ere Xanpun gizon alaia eta beti on egitekoa izan zen. Jon Lopategiri duela urte pare bat edo Durangon egin zitzaion omenaldian Xanpun izan genuen, eta bere lagun bertsolariarentzat izan zituen hitz gozoak esker onez beterikoak izan ziren.

Laudorio hauek hil eta gero plazaratzea badirudi ez dela

gutziz egokia, sinesgarritasuna galdu egiten baitu. Baina kasu honetan ez da horrela. Bere inguruan bizitzeko zortea izan duten orok horixe aitortuko dute. Xanpunen irribarrea, Xanpunek eskua ematen zuenean sortzen zuen halako zerbait berezia, Xanpunekin hitz egitea,

"Xanpunen irribarrea, eskua ematen zuenean, Xanpunekin hitz egitea, beno beno, zer gauza gustukoagorik"

beno beno, zer gauza gustukoagorik!

Azkenengoz egon ginenean beste gauza askoren artean bertsolarietaz mintzatzeari gogoratu zigun eta barruan ongi gorde genuen: "Apala behar du bertsolariak, pertsona guztiak bezalaxe, baina

bertsolaria gehiago, entzulearen bihotzean sartu nahi badu harro ez dela igarri behar zaio".

Xanpun joan zaigu eta alde batetik tristantza sortzen digu barruan, baina bestetik horrelako pertsonak gure artean izan ditugula jakiteak poza eta sentimendu berriak sortarazten digu. Xalbador eta Mattin handiekin aritu zen. Trinitate santua baina santuagoa. Agur eta mila esker. Guretzat, mezurik onena zeure bizitza izan baita.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta

Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- ZAPATUA, 9**
PUY, Barrenkale 25..... 943 76 16 87
- DOMEKA, 10**
PUY, Barrenkale 25..... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 11**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 12**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 13**
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- EGUENA, 14**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |
- URTE-MEZAK**
Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

ODOL-EMATEA

Odol emileen elkarteak jakinarazi duenez, odol-ematea egingo da eguaztenez, otsailaren 13an. Beti bezala, Seminarioko lokalean egingo dute, 18:30etik aurrera. Odol emaleek eskerrak eman nahi dizkiete azken asteotan laguntza eman dufen guztiei.

HELDUEN HEZIKETA ESKOLA

Bergarako Helduen Heziketa Eskolak 2001-2002 ikastaroko bigarren lauhilabeterako matrikula epea zabalik dagoela jakinarazi nahi du. Argibideak 943 76 44 52 telefono zenbakian edo Barrenkale 33ko bigarren pisuan jaso daitezke.

DANTZARA PLAZARA

Dantzara plazara erroneria erraldoia antolatzen ari da Moises Azpiazu dantza taldea. Aipatutako erroneria maiatzaren 11n izango da Bergaran, eta ahalik eta partaidetza handiena lortzeko, herritarrei zuzendutako doako dantza ikastaroak emango dituzte. Eskolak ondoko egunetan izango dira: astelehen, martitzen, eguazten eta egunetan, 19.00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 11:00etatik 12:00etara. Argibideak 943 76 15 40 telefono zenbakian.

JARDUNEN AGENDA

JARDUERAK GAZTETXOENTZAT

Zapatuan, otsailaren 9an, Inauterietako desfilea egingo da 17:00etan Kartze-lan. Domeka arratsaldean, berriaz, torradak egingo dituzte.

NUTRIZIO IKASTAROA

Nutrizio ikastaroa otsailaren 18tik aurrera. Argibideak 943 76 08 19 telefonoan.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolbia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN


Diputazioak Bergarako errekatxoak garbitu zituen

Diputazioko N-ekazaritza eta Arrantza Sailak, Tragsa enpresaren bitartez, Bergarako errekatxoak garbitzeko lanak burutu zituen. Uberan, Osintxun, Sagar-Errekan eta Deba ibaian zikinkeriak garbitzeko lanak egin zituen, bi milioi inguruko aurrekontuarekin.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Marraskala"



Argala, ziztrina.
-Ondo marraskala dago andra koittaua.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 2	0 °C
MAXIMOA Zapatua, 2	21 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	42,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 30	16 °C	7 °C	- l/m²
Eguena, 31	16 °C	7 °C	0,9 l/m²
Egubakoitza, 1	19 °C	3 °C	- l/m²
Zapatua, 2	21 °C	0 °C	- l/m²
Domeka, 3	17 °C	6 °C	1,9 l/m²
Astelehena, 4	17 °C	4 °C	- l/m²
Martitzena, 5	16 °C	14 °C	39,3 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'TRAS LA LINEA ENEMIGA'

ZUZENDARIA: JOHN MOORE. AKTOREAK: OWN WILSON, GENE HACKMAN, JOAQUIM DE ALMEIDA.

HARIA. Bosnian gerra krimenak agerian uzten dituzten argazki ak lortuko ditu pilotu batek.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, domekan 17:00etan 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'LA CUADRILLA'

ZUZENDARIA: KEN LOACH. AKTOREAK: DEAN ANDREWS, TOM CRAIG, JOE DUTTINE, STEVE HUISON.

HARIA. Britainia Handiko trenbideen pribatizazioaren sasoiaren Yorkshiri inguruan trenbideak konpontzen dituen langile talde baten gorabeherak azaltzen dituzten kigu Ken Loach zuzendariak. Lan baldintzek okerrera egitean egoera larrian izango dira langileak...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Eguenean, otsailak 14, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

BERGARA MARGOAK

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ARATUSTEAK/ Kalea gehien alaitzen duen taldeari afari-merienda emango dio Bedelkarrek

Gaur hasi eta martitzenera arte Aratuste egitarau zabala ume zein nagusiagoentzat

MONIKA BELASTEGI

Aratusteetara ere iritsi gara. Gaur hasi eta martitzenera arte hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dugu Aratuste jai hauetan. Antzerkia, musika, pailazoak... ekitaldi ugari antolatu dituzte jaiak alaitzeko. Hala ere, garrantzitsuena, mozorroak izango dira.

Aratuste jaiak hasteko kontzertua izango da gaur, 22:30ean Udal Pilotalekuan; Udal Musika Banda eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua, hain zuzen ere. Emanaldiak bi atal izango ditu. Lehenengoan, bandak eta orkestrak bakarkako lanean bina obra eskaino dituzte; bigarrenean, biak elkarrekin arituko dira. Sarrerak 3 euro (500 pezeta) balio du, eta jasotako dirua Afganistanera bidaliko dute. Sarrerak erosteko lehiatila kontzertua baino ordu bete lehenago irekiko dute.

ZAPATUAN MUSIKA IZANGO DA NAGUSI

Aratuste giroa zapatuan hasiko da nagusitzen. Mozorro zaleek ere orduan jantziko dituzte euren jantziak eta pailazo, mexikar, indiar... denetarik ibiliko da herriko kaleetan egun horretan. Hori guztia oraindik ere gehiago alaitzeko, hainbat ekitaldi izango da arratsalde zehar.

Arratsaldeko 16:00etan, Auskalo taldeak *Kroketa Sopa* umeentzako herbena egingo du San Martin plazan, edo Zabalotegiko pilotalekuan euria egingo balu.

Berbena horretan umeen parte hartzea bultzatzen dute taldeko kideek, eta horretarako jokoak, playback-ak, kantuak eta dantzak egingo dituzte. Horrez gain, saioa baino ordu erdi lehenago makillaje tailerra izango da, umeak margotu eta mozorrotzeko.

Horrez gain, 17:30ean, Bergarako Konpartsako erraldoi, kiliki, eta buruhandien kalejira izango da Udal Txistulari Bandak eta Kobok Dultzaineroek lagunduta. Konpartsak egingo duen ibilbidea honakoa izango da: Arruriaga, Masterreka, Infernokua, Bideberri, Irizar pasealekua, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Goenkalea eta Arruriaga.

Konpartsaren kalejiraren ondoren, Xamatx dantza taldeko kideen txanda iritsiko da. 19:00ak aldera, kalejira egingo dute Xamatxekoek eta baita hainbat dantza eskaini ere.

Eta zapatu Aratustea amaitzeko, 22:30ean, dantzaldia izango da Fraiskoazuri plazan, Miramar Orkestrarekin. Bestalde, rock musika nahiago duenarentzat, 23:00etan San Martin plazan *Ken 7* eta *Onddo* taldeak izango dira.



lazko euri zaparradak giroa zertxobait apaldu zuen arren ez zen mozorrotzeko eragozpen izan hainbat lagunentzat.

Musika Bandak eta Orkestrak hasiko dituzte aratusteak gaur, 22:30ean frontoian

Aratuste domekan ere izango da ikuskizunik. Batetik Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira. Bi saio egingo dituzte, biak Udal Pilotalekuan; bata,

Konpartsako erraldoi, kiliki eta buruhandiek kalejira egingo dute zapatuan, 17:30ean

16:30ean, eta, bestea, 18:30ean. Hiru pailazoek *Aupa Kintxo!* azken ikuskizuna eskainiko dute hurbilduko diren neska-mutikoen gozamenerako.

Jaiak amiatzeko Sardinaren entierroa izango da martitzenean San Martin plazan

Horrez gain, musika eta dantza nahiago dutenentzako, 18:00etatik aurrera, Luhartz musika taldeak emanaldia egingo du San Martin plazan.

MARTITZENEAN SARDINAREN OHIKO ENTIERROA

Aratuste martitzenean jarraituko dute jaiak. 16:30ean, Musika Eskolako txarangaren kalejira izango da, eta ondoren, 17:00etan, Txamuskina taldeak *Kaioa eta Katua* haurrendako kale antzerkia egingo du. Antzerki lan horrek, *Antxon* katuaren istorioa kontatuko digu. *Antxon* arrantza herritxo batean bizi zen, portua zen haren etxea. Egun batean kaio bat aurkitu zuen portuan, marea beltz baten eraginez hil zorian. *Antxonek* kaioa zaindu egingo du, baina nahiz eta sendatzen ahalegindu, kaioa hil egingo da. Hil aurretik, baina, arrautza jarriko du kaioak. Arrautza hartatik kaiokume bat jaioko da, eta *Antxon* arduratuko da berau zaintzeaz.

Antzerkiaz gain, arratsaldean musika ere izango da San Martin plazan. 18:30etik 20:30era arte Gaubela taldearekin dantza egiteko aukera izango da, eta etenaldi baten ondoren, jarraitu egingo du dantzaldiak 22:30etik 00:30era bitartean. Etenaldi horretan, 20:30ean zehazkiago, Sardinaren entierroa egingo dute. Sardina Kultura Etxetik aterako da eta San Martin plazarainoko bidea egiten lagundu nahi dioten herritar guztiak daude gonbidatuta. Ondoren, eta jaiak amaitzeko, ohi den bezala erre egingo dute sardina plazan.

AFARI-MERIENDA KALEA GEHIEN ANIMATZEN DUENARENTZAT

Azken urteetan egin izan duen bezala, Bedelkar herriko dendarien elkarrekin 150 eurotako afari-merienda emango dio Aratusteak gehien animatzen dituen taldeari. Hori bai, derrigorrezkoa izango da taldea mozorrotuta egotea.

Takolo, Pirritx eta Porrotx umeen gozamenerako

Domekan, umeen gozamenerako Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira herrian. *Aupa Kintxo!* azken ikuskizuna egingo dute Udal Pilotalekuan. Bi emanaldi eskainiko dituzte, gainera, 16:30ean lehena, eta 18:30ean bigarrena.

Azken lan hori Nikaraguan kokatzen da, eta hango Quinchoekin izandako bizipenak kontatuko dituzte istorioan zehar. Baina guztia ez da kantu eta dantza izango, ikuskizun orotan bezala, oraingoan ere lana egin beharko dute hiru pailazoek. Quinchoendako eskola berria eraikiko dute. Lan horretan zoriotsu dira Takolo, Pirritx eta Porrotx, baina Toribio Errege tripontzia euren alaitasuna apurtzen saiatuko da.

2001eko otsailan, HONEK gobernuz kanpoko erakundeak gonbidatuta, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak Nikaraguan zehar egindako biran mamitu zen *Aupa Kintxo!*. Hiru pailazoek han eskainitako

emanaldiak direla eta, harreman zuzena izan zuten bertako herritarrekin, eta haien kultura eta bizimodua gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

Aukera hori ongi aprobetxatu zuten hiru pailazoek; Nikaraguako haurren kantu eta jolasak bildu egin zituzten, eta horiek eta Nikaraguan izandako bizipenak lotuz, Bergaran, domekan egingo duten *Aupa Kintxo!* ikuskizuna osatu zuten.

Ikuskizun horren helburua ez da, soilik, ikusleen gustagarri izatea; haur nikaraguarrek bizi duten errealitatearen berri eman nahi du, eta baita Somotoko Quinchoen eskolari guztion artean bultzada ematea ere.





Herriko mahaiko kideak, egubakoitzean Artatse elkartearen egindako aurkezpenean.

MÓNICA BELASTEGI

POLITIKA/ 2002an jarraituko dituen ildoak ere eman zituzten aditzera

Herriko Mahaia eratu berria aurkeztu du Batasunak

MÓNICA BELASTEGI

Bergarako Batasunak erakundearen egitura berria aurkeztu zuen egubakoitz iluntzean. Egitura horren barruan, Bergarako Herriko Mahaia osatzen duten 21 lagunaren izenak eman zituen aditzera. Baita aurten jarraituko dituzten lan ildo nagusiak ere.

Joan den egubakoitzean, Herriko Mahaia osatzen duten hogeita bat lagunaren izenak jakinarazi zituen Batasunak, Artatse elkartearen egindako prentsaurrekoan.

Mahaia hori izaera, adin eta jatorri ezberdinetako hogeita bat lagunek osatzen dute: zinegotziak, langileak eta hainbat taldeetan aritutako lagunak daude.

Herriko Mahaia osatzen duten horiek batzarrean, hau da, gune erabakitzaile nagusian hartuta

ko erabakiak zelan herriratu erabakiko dute; eta horixe izango da gainerako taldeekin eztabaidatzeko gunea. Herriko Mahaia azpitik gune iraunkorra izango da, eta mahaia erabakitakoa egitarituko du.

Egitura hori antolatzekeo prozesuan, hainbat alor estrategikotako jendearekin izan dute harremana; prentsaurrekoan azaldu zuten, "egitura hori ahalik eta demokratikoa, horizontala eta parte hartzailea izateko". Azken baten, "herri mugimenduari eta herritarrei hurbilekoa eta baliagarria izango zaien erakundea sortu nahi izan baitugu".

2002 URTERAKO LEHENTASUNAK

Horrekin batera, Bergarako Batasunak aurten jarraituko duen lan ildoaren berri ere eman zuten egubakoitzeko aurkezpenean.

Ildo horretan, interes berezia jarriko dute garatu beharreko interlokuzio lanean. Baita Bergarako dituen beharren lanketan ere. Behar horien artean, hainbati garrantzi berezia emango diotela aurreratu zuten Batasuneko kideek. Besteak beste, euskaran, irakaskuntzan, lurralde antolaketan, gizarte eraldakuntzan eta udalgintzan.

Horrekin guztiarekin batera, prentsaurrekoan gehitu zuten komunikabideek "herri honen existentziari eta herri bereiztu gisa dituen behar gorriek ezartzen dien sordina gaunditzeko asmoz", seihilabetekari bat kaleratuko dutela.

Azkenik, adierazi zuten Batasunak Iruñean aurkeztutako bake proposamena kaleratzeko lanari otsailean ekingo diotela. Hori izango da Batasunak kalera begira egingo duen lehen lana.

du: zazpi Osintxura joateko eta gainerakoak buelta egiteko. Ibilaldia egiteko denborari dagokionez, lau bat ordukoa da.

Esan bezala ibilbidea dagoeneko osatu du Kapirixok, eta, orain, Gipuzkoako Mendi Federazioak aztertu beharko du. Onartuz gero, beste ibilaldi batzuekin

egin bezala, triptikoan jasoko dute, eta turismo bulegoetan jarriko dute. Triptiko horretan ibilbidearen alde interesgarriak ere jasoko dira, bai historikoak (trenbidearen historia laburra), baita ondarearen ingurukoak ere (Moyua dorrea eta bidean dauden auzo eta zubiak).

LABUR

Osasunaren autogestioan sakontzeko beste bi saio astelehenean eta eguaztenean

Osasunaren autogestioan sakontzeko ikastaroaren barruan beste bi saio egingo dituzte datorren astean. Honako gai hauek landuko dituzte: astelehenean, otsailaren 11n, *Elikadura ezagutu, gaitasunak prebenitu eta sendatzeko. Janedanaren eragina osasunarean*; eta eguaztenean, otsailaren 13an, *Osasuna harremanetan elkarlanean aritu*. Biak kultura etxean izango dira, 19:00etatik aurrera. Udaleko Gizarte Ongizate Sailak antolatutako hitzaldiotan nahi duen guztiak har dezake parte, aurrez izena eman beharrik gabe, eta saio guztiak doan izango dira.

Jardunek antolatutako nutrizio ikastaroan izena emateko azken egunak

Jardun Euskara elkarteak nutrizioaren gaineko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa otsailaren 18an hasiko da eta otsailaren 28ra arte iraungo du. Saioak astelehenean eta eguaztenean izango dira, kartzela zaharrean, 19:00etatik 20:30era. Eta, gai hauek jorratuko dira: loditasuna gaixotasun gisa, higieena, eta dieta bat zelan banatu astean barrena. Ikastaro hori Mireia Alberdi dietistikak emango du.

Izena emateko azken eguna otsailaren 13 da. Interesatuak Jardun Euskara elkartearen bulegoan (kultura etxe sotoa) edo 943 763661 eta 943 760819 telefonoetan eman dezakete izena; baita informazio gehiago eskuratu ere. Prezioari dagokionez, bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte (2.000 pezeta), eta gainerakoek, aldiz, 15 euro (2.500 pezeta).

Windows eta Microsoft Word hasiera ikastaroa antolatu du Enplegu Zerbitzuak

Udaleko Enplegu Zerbitzuak informatika ikastaroa antolatu du. Windows eta Microsoft Word hasiera jorratuko dira ikastaroan. Parte hartzeko, teklatura erabiltzen jakin beharko da. Horretarako, ikastaroari ekin baino lehenago, 10 orduko mekanografia saioa eskainiko dute.

Taldeak, gehienez, hamabi lagunekoak izango dira, eta ikastaroa otsailaren 18an hasi eta martxoaren 26ra arte iraungo du. Saioak astelehenean egubakoitzera izango dira, 15:00etatik 17:00etara bitartean. Izena ematean, 30 euroko diru sarrera egin beharko da (5.000 pezeta) izena ematerakoan zehaztuko duten kontu korrantean.

Izenematea otsailaren 11tik 15era egin ahal izango da, 09:00etatik 13:00etara, Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuan.



Jam, Estatuko areto gustukoena

Heavy Rock aldizkari irakurleen arabera, Jam aretoa da emandietarako egokiena Estatu osoan.

Aldizkariak zerrenda bat kaleratu zuen orain dela hila-bete bi, irakurleek bozkatzeko: 2001eko disko onena, talde onena, abesti onena... Oraingo hilean irten dira emaitzak, eta areto onenaren atalean Bergarako Jam izan da bozkatuena.

Trenbide Xenda deituriko ibilbidea osatu berri du Kapirixoko elkarteak

MÓNICA BELASTEGI

Trenbide Xenda, Goiko Estazi-ñotik Osintxura arteko ibilbidea osatu du Kapirixoko elkarteak. Ibilbidea Matxiategiko kanposantuen aurreko aldeko aparkalekuan hasi eta amaitzen da eta hamalau kilometroko distantzia

EHNA/ Bai Euskal Herriari herri ekimenak jarri du abian eta tabernetan egingo da

Sinadura batzea, Udalak EHNA tramita dezan

MONIKA BELASTEGI

Bai Euskal Herriari herri ekimenak sinadura batzea jarri du abian. Helburua da Udalari eskatzea Euskal Nortasun Agiria tramita dezala. Sinatze horiek herriko tabernetan egin ahal izango dira; han utzi dituzten postaletako datuak bete eta sinatu beharko dira.

Bergarako Bai Euskal Herriari taldeak beste ekimen bat abiarazi du aste honetan: sinadura batzea. Sinadura batze horren helburua da Udalari eskatzea Euskal Nortasun Agiria tramitzeko konpromisoa har dezala. Martitzenean, kultura etxean, urrats horren berri eman zuten herri ekimeneko kideek.

Sinadurak tabernetan egin ahal izango dira. Bai Euskal Herriari taldeko kideek postalak eta eskuz egindako etxetxoak utzi dituzte herriko hainbat tabernetan. Postal horietan nor bere datuak bete eta sinatu ondoren, etxetxo horietara bota beharko dira postalok. Gero, ekimeneko kideek jasoko dituzte eta Udalera bidali, Euskal Nortasun Agiria tramita dezala eskatzeko.

Etxetxo eta postal horiek hainbat tabernetan lagatzeaz gain, bihar, zapatua, jaima bat jarriko dute Bai Euskal Herriari ekimenekoek San Martin plazan, sinadurak jasotzeko asmoz. Jaima hori goizez eta arratsaldez egongo da.

BIGARREN URRATSA

Bai Euskal Herriari ekimena duela hilabete gutxi batzuk hasi zen lanean Bergaran. Lehen urrats gisa, atxikimenduak lortzeko lanari ekin zioten. Horretarako, hainbat sektoretako talde eta erakundeekin batzartu ziren. Martitzeneko prentsaurrekoan, lehen urrats haren gaineko balorazio positiboa egin zuten. Kideen esanetan, hainbat talderen atxikimendua lortu dute, eta kartelak ere kaleratu dituzte atxikimendu horien berri emateko. Lehen urrats haren ondoren bigarrenari ekin diote, sinadura batzeari, hain zuzen ere.



Bai Euskal Herriari ekimeneko kideak martitzeneko prentsaurrekoan.

MONIKA BELASTEGI

Sinadura batzearen helburua da Udalari eskatzea Euskal Nortasun Agiria tramita dezala

Sinadura tabernetan egin daiteke, eta bihar, jaima bat jarriko dute plazan

Prentsaurrekoan azaldu zuten, Bai Euskal Herriari herri eskubideen eta euskal demokraziaren aldeko herri ekimen gisa bultzatu nahi izan dute, eta hel-

buru hirukoitza du ekimenak: batetik, eskubideen errespetuan oinarritutako euskal demokrazia eskuratzeko beharra lantzea; bestetik, euskal herritar gisa bizi nahia lantzen ari direnen ahotsa gorpuztea eta sinergia sortzea; eta, azkenik, desobediencia/deslota estrategia indartzea bai praktikan baita diskurtso politikoan ere.

ESKUBIDEAK ALDARRIKATUZ

Helburu horiekin batera, aldarrikapen nagusiaren berri ere eman zuten. Ekimenak euskal herritarren eskubide zibil, politiko, kultural, sozial eta ekonomikoak aldarrikatu nahi ditu.

Sinadura batzea Euskal Nortasun Agiria lortzeko bidea da, baina Bai Euskal Herriari ekimeneko kideen esanetan ekimenaren ibilbidea ez dela hor bukatzen. Azken baten, herri bat erakitze bidean herri eskubideak orokorki jorratu behar dira-eta.

Zuhaitz Eguna antolatu du Ingurumen batzordeak

MONIKA BELASTEGI

Datorren zapatuan, otsailaren 16an, Zuhaitz Eguna antolatu du Udaleko Ingurumen batzordeak. Batetik, San Martin plazan azoka egingo dute; eta, bestetik, San Martzialen zuhaitzak landatuko dituzte.

Datorren zapatarako, otsailak 16, Zuhaitz Eguna antolatu du Udaleko Ingurumen batzordeak. Azken urteetan Zuhaitz Astea izan dena aurten Zuhaitz Eguna izango da, hau da, egun bakar baten batuko dira zuhaitzaren gaineko ekitaldiak.

Datorren zapatuko Zuhaitz Egunak bi oinarri nagusi izango ditu: alde batetik, azoka izango da, eta, beste alde batetik, zuhaitzak landatuko dituzte.

AZOKA SAN MARTINEN ETA LANDATZEA SAN MARTZIALEN

Azokari dagokionez, San Martin plazan izango da, 09:30etik aurrera. Hantxe, baso lanerako tresneriaren erakusketa eta salmenta izango dira. Horrez gain, zuhaitzen ezaugarrien gainean gehiago ikasteko aukera ere izango da, zuhaitzen ezaugarrien inguruko erakusketa ere izango da-eta San Martingo azokan.

Horrez guztiaz gain, zuhaitz landatzea ere egingo da San Martzialgo zelaietan. San Martzialera zuhaitzak landatzera joan nahi duten guztiak daude gonbidatuta. 10:00etan izango da irteera, Santa Marina ostetik, azoka paretik. Hortaz, San Martzialen zuhaitzak landatzera joateko interesa dutenek horixe dute batzeko tokia eta ordua.



ARTXIBOA

Irudian, iazko azokan ikus zitezkeen zuhaitzetako batzuk.

LABUR

Egunkarien postua Seminario parera aldatuko du Udalak, lehen zegoen moduan

San Martin plazako egunkarien postua lekuz aldatuko du Udalak. Duela hilabete gutxi postu berria jarri zutenean, Seminario paretik kendu eta Leizarraga etxe parera eraman zuten. Baita ONCEko postua ere.

Aldaketa hori dela eta, Leizarraga etxe hainbat bizilagunek kokapen berriaren gaineko kexua aurkeztu dute Udalean. Hori horrela, egunkari salmenta postua berriro ere Seminario parera eramateko erabakia hartu du Gobernu Batzordeak. ONCEko postua, berriz, dagoen tokian geratuko da.



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

BERGARAN
BULEGO BERRIA



INMOBILIARIA

BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



JARDUNEKOAK PATINATZEN

lotzetan patinatzerara joan ziren Jarduneko asteburueta aisialdi taldekoak joan zen zapatuan Gasteizera. 64 gaztetxo eta lau begirale joan ziren, eta han ibili ziren izotz gainean irristan; baita ipurdiko galantak hartu ere! Asteburueta aisialdi taldekoek aurrera jarraituko dute euren ekintzekin, eta bihar, zapatua, moztorro desfilea egingo dute Kartzela Zaharrean. Domekan, berriz, torradak egingo dituzte, karnabaleko ohiko jakia.



SAN BLAS ETA SANTA AGEDA


Azkeneko aste honetan, San Blas eta Santa Ageda ospatu ditugu herrian. Eguraldia ere lagun izan zuten domekan San Blas eguna ospatzera joan zirenek. Horrela, meza ermitan ospatu beharrean, kanpoan ospatu zuten. Aldapan gora, jende mordoak joan zen oinez, euren opilak hartuta, San Blasen bedeinkapenaren bila. Santa Ageda bezperan, berriz, astelehenean, Santa Ageda eskean ibili ziren kalez kale herriko hainbat talde. Argazkian, San Joxepe elkarteko kideak ikus ditzakegu, elkarteko abesbatzako kideak, hain justu. Baina, herriko ikastetxeetako neska-mutikoak eta beste hainbat lagun ere ibili zen, ohiturari jarraituz, kopla kantari herriko kaleetan zehar.

FESTA KUBATARRA

ARALAR TABERNAN

Matxiategi 3, Bergara
Otsailaren 9an, zapatua, 23:00etan

- Konbinatu kubatarrak
- Kubako dantzariak
- Dantza afrokubatarren ikuskizuna



etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

BERGARARRAK MUNDUAN

RAFA SALAZAR

36 URTE / IRAKASLEA / GLASGOW (ESKOZIA)

“Ez zait batere zaila egin hemengo bizimodura eta ohituretara moldatzea”

AINTZANE IRIZAR

Urtebete darama Eskozian Rafak. Neskalaguna eskoziarra dela eta, hara joan zen bizitzera. Bergaran ezagutu zuten elkar, eta Glasgown bizi dira orain.

Gaztelarazko eskolak ematen ditu. “Hemen jende askok ikasten du gaztelera; gehienek, Espainiako kostaldean etxea dutelako ikasten dute”, diosku Rafak. Irakasle izateaz gain, ikaslea ere bada Rafa; unibertsitatean dihardu, hemen ezagutzen ez ditugun ikasketak egiten: “arazoak dituzten pertsoneri, kirolaren bitartez laguntzen ikasten dugu karreran”, azaldu digu.

Esan bezala, urtebete besterik ez darama Eskozian, baina segituan moldatu ei da hango bizimodura: “ez zait batere zaila egin hemengo bizimodura, ohituretara eta kulturara moldatzea”. Dena dela, oso ezberdina ei da Eskozia: “dena da ezberdina: eguraldia, jendea, ohiturak...”, diosku. Jaterako orduan, esaterako, ohitura zeharo ezberdinak dituzte: “hemen jendeak ez du bazkaririk presatzen, sandwich bat edo antzerako zozter jaten dute, eta kitto. Litxarrerria



mordo bat jaten du hemengo jendeak. Baina, beno, horretara ere moldatu naiz”, diosku Rafak.

Kaleko giroa ere ezberdina ei da: pubak gaueko 23:00etan ixten dituzte; jendeak hiruzpalau ordu pasatzen ditu pub batean jarri eta berri-

“Euskaldun asko gaude Glasgown bizitzen, baita Bergarako jendea ere”


ketan eta garagardoak edaten. Rafak Pirinioen falta igartzten du gehienbat: “lagunekin mendira joatea eta giro hori faltan sumatzen dut”.

“Hemen euskaldun asko dago, baita bergararrak ere; Kepa Mendibilekin, adibidez, asko egoten naiz”, azaldu digu.

Etorkizunari begira, datozen hiruzpalau urteak, behintzat, Eskozian jarraitzeko asmoa du Rafak.

“Gero, ikusiko dugu zer egin; izan ere, neska-lagunari ere asko gustazen zaio Euskal Herria”.

MINGAINARITIRAKA



Juan Mari Azpiazu

ATHLETIC PEÑAKO PRESIDENTIA

Juan Mari 69 urte dauka, Athletic peñako presidentia da martxotik. Txiki-txikittatik da Bilboko futbol taldiaren jarraitzailea, baiña euskal talde danek irabaztia nahi izaten dau.

Noiztik zara peñako presidentia?

Aurtengo martxotik naiz presidentia, baiña orain dala hiru urte peña sortu zanetik, bazkidia naiz.

Zein da futbol peña bateko presidentiaren eginbiharra?

Txapuz mordia egittia: partidutara juteko biajiak organizau, kuotak bialdu... Eskerrak alabiak laguntzen dostenari.

Beti izan zara futbolzalia?

Uff! Oso. 1946xan hasi nitzan Bilbora jutun; trenian jutun nitzan. Nere tio bat soziua zan, eta haura hil zanian, orain dala 27 urte, neu egin nitzan sozio.

Eta zergaittik athleticzalia?

Txiki-txikittatik naiz athleticzalia; garai hartan Real gutxiago zan Athletixa baiña, eta horregaittik izango da.

Noiz sartuko da gabarran Athletic?

Aurten bazeguan esperantzia, baiña...

Penaz egongo zara...

Ni etsitta nenguan, Madrilen irabaztia oso zaila da, hango girua, jendia...

Jokalari danak euskaldunak bai, baiña entrenatzailea kanpotarra da...

Uste dot kanpoko entrenadoriei errespetu gehixago edukitzen jakolako izango dala. Realak galtzen dabenian pozten diran hortakua zara?

Ez, euskaldunek irabaztia gustatzen jat Canal Sateliten abonatuta zaude?

Ez, Toki-Onara jutun naiz partiduak ikustera.

Ze beste zaletasun daukazu?

Kirol danak gustatzen jat.

Amets bat?

Preso guztiak etxian ikustia nahiko nuke eta, zela ez, Athletic txapelduna izatia.

AINTZANE IRIZAR

NIRE BIDAIA HURA / Jose Jabier Agirrezabal

VIETNAM / 1999ko abuztu

Vietnam ezagutzera joan ginen lagun bat eta biok Marco Polo bidai agentziarekin. Oso bidai interesgarria izan zen. Hegoaldetik iparraldera, Vietnam ia osoa ikusi genuen. Ia hilabete pasatu genuen han. Ho Chi Minh hasi genuen gure bidai; Vietnamgo hiriburua da Ho Chi Minh, eta hegoaldean dago. Batez ere, hango pagodak ikusi genituen, hango elizak, nolabait esatearren. Oso ederak dira, eta izugarria da zenbat dauden. Hiriburutik kilometro gutxira dauden Cu Chiko tunelak ikusten ere egon ginen; Estatu Batuen aurkako gerran, lurpeko tunelotan ezkutatzen ziren vietnamdarak. Hegoaldetik iparraldera joan ginen, poliki-poliki.



Vietnamen, hango paisaiak eta jendea gustatu zitzaizkidan gehien, hegoaldeko jendea, batez ere. Oso ezberdinak dira hego eta iparreko vietnamdarak: hegoaldekoak askoz atseginoak dira, irekiagoak eta jatorragoak. Oso ondo hartzen dituzte turistak. Iparraldekoak, berriz, hotzagoak dira, itxiagoak, eta ez zaizkie turistak batere gustatzen. Izan ere, euren kultura eta ohiturak ondo gorde nahi dituen jendea da, eta beldur diote gehiegizko turismoari. Nekazariak dira gehienak, lurra lantzetik bizi dira, eta baita arrantzatik ere. Arroza da hango jakirik ohikoena. Gatzaga batzuk ere ikusi genituen; emakumeak ari ziren lanean; emakumezkoek egiten dituzte han lanik neketsuenak.

“Iparraldeko vietnamdarak hotzago eta itxiago dira”

“Vietnamdar gehienak nekazariak dira, hortik bizi dira”

Paisaiari dagokionez, esan bezala, zoragarria da. Euri mordo egiten du, oso paraje hezeak dira, ikusgarriak dira hango bazterrak. Bidaia interesgarria, hasieran esan dudana moduan, eta oraintxe egiteko modukoa. Izan ere, turismoa hazten ari da, eta niri, behintzat, turismo gutxi dagoen tokiak ikustea gustatzen zait.

AINTZANE IRIZAR



Jose Jabier Vietnamgo herrixka bateko umeekin.

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA. Tf. 943 76 23 79



ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea 943 76 59 54 BERGARA



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 943 76 71 19

EDARIA DOAN

ZURE OGITARTEKOA ESKATZEAN, ERAKUTSI TXARTEL HAU ETA EDARIA DOAN EMANGO DIZUGU!





Begararrak sailkapeneko 10. tokian daude, eta zapatuan Ordizia taldeari bisita egingo diote.

ARTXIBOA

FUTBOLA

Bergarak azken minutuetan lortu zuen garaipena Urolaren aurka

Xabi Arregik eta Igor Arriagak 81. eta 85. minutuetan hautsi zuten berdinketa (3-1)

EDU MENDIBIL

Bergarako preferente taldeak garrantzi handiko garaipena eskuratu zuen zapatuan, Agorrosinen. Etxekoak estu eta larri ibili ziren Urola menderatzeko. Arregik eta Arriagak partiduko azken zatian sartutako golei esker 3-1 irabazi zuten mahoneroek.

Begararrek partidu txarra egin zuten zapatuan, lehen zatian batez ere. Agorrosinera hurreratutako zaleek ez zuten ez jokoarekin gozatzerik izan. Lehen zatia hurnako berdinketarekin amaitu zen.

Bigarrenean Juanina Garaiaren taldea erasoka aritu zen, eta 59. minutuan Urolako Pablo atzelariak bere atean sartutako gol bati esker aurreratu ziren etxekoak markagailuan. Hala ere, zumarragarrek ez zuten etsi, eta partidua bukatzeko 21 minutu falta zirela berdinketa lortu zuten, Piki jokalariairena falta jaurtike-ta baten bitartez.

BI GOL AZKEN MINUTUETAN

Bergarak ezinbestekoa zuen zapatuan garaipena lortzea, sailkapeneko goialdean dauden talde-

kiko aldea ez handitzeko, eta Bergarako zaleek azken minutura arte sufritu behar izan zuten. Xabi Arregi goleatzaileak gol bikaina sartu zuen 81. minutuan, eta 85.ean Igor Arriagak 3-1eko a egin zuen.

Juanina Garai entrenatzailearen hitzetan, "ez genuen partidu onik egin zapatuan. Lehen zatian nahiko gaizki jokatu genuen, eta hala ere zumarragarrek ez ziren gauza izan guri irabazteko. Taldea ondo ikusten dut, eta lesionatuta diren jokalariai-

errekuperatu ahala sailkapenean gora egingo dugula uste dut. Datoren partidua erabakigarriak izango dira".

PARTIDU BAKARRA ASTEBUKAERAN

Futbol karteldegari dagokionez, partidu bakarra izango da astebukaeran Bergaran. Ohorezko mailako gazte taldeak Urola hartuko du zapatuan, 16:30ean Ipintzan. Ohorezko gazteek sendo jarraitzen dute ligan, eta astebukaeran 0-6ko emaitzarekin irabazi zioten Hernaniri.

"Bost lehenengo artean"

Liga amaitzeko 15 partidu falta dira, eta Bergarak zaila izango du igoera lortzeko borrokan sartzea. Elgoibar liderrak 10 puntuko aldea ateratzen die mahoneroei. Garaiaren arabera, "helburua azken partidura arte aurreko taldeekin batera lehiari izatea da, eta bost lehenengo artean izan gaitezke liga amaieran. Partiduz partidu joan behar dugu". Hasteko, zapatuan Ordizian jokatu du Bergarak, eta datorren astean Hernani izango da bisitari Agorrosinen. Lehenbailehen lesionatutako jokalariai errekuperatzea ezinbestekoa da Garaiarentzat. Mendiartz, Errasti, Berraondo eta Laskurain baja garrantzitsuak izan dira azkenaldian.

Tenis eta esku pilota txapelketak Bergaran

E.M.

Debagoieneko zirkuituaren barruan, tenis eta esku pilota txapelketak jokatu dira Bergaran otsailaren 16tik aurrera. Bietan, izena emateko epea datorren eguaztenera arte izango da zabalik.

Esku pilota txapelketa bikoteka jokatu da lau terdian, eta partidua Udal Pilotalekuan eta Angiozarko Arbiaska pilotalekuan izango dira, otsailaren 16tik apirilaren 28ra bitarteko zapatuetan. Txapelketa federatu gabeko pilotazaleei zuzenduta dago, eta antolatzaileek pilota goxoak jarriko dituztela azpimarratu dute. Partiduak, ohikoa denez, 22

tantura izango dira. Bikote bakoitzak ordezko jokalaririk baten izena eman ahal izango du. Lehen fasea liga sistema jarraituta jokatuko da.

TENISA KIROLDEGIAN

Debagoieneko zirkuituaren lehenbiziko tenis txapelketa Bergarako Kiroldegian izango da, otsailaren 16tik aurrera. Partidua kopuruaren arabera bi edo hiru talde izango dira. Partiduak 3 setetara jokatuko dituzte.

Esan bezala, bi txapelketarako izena emateko epea otsailaren 13ra arte izango da zabalik. Bazkideek 12 euro eta gainera, koek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Argibideak Kiroldegian, 943 77 91 67 zenbakian.

Senior saskibaloit taldea sendo igoera fasean

E.M.

Senior mutilen saskibaloit taldeak 83-60 emaitzarekin irabazi zion zapatuan Alde Zaharrari, Labegarrietako Kiroldegian. Begararrek partidu bakarra galdu dute orain arte igoera fasean.

David Urbinak zuzendutako taldea erraztasun handiz nagusitu zitzaion Alde Zaharra talde donostiarriari. Begararrek lau partidu jokatu dituzte igoera fasean eta bakarra galdu dute, Aldapeta lideraren aurka hain zuzen ere. Astebukaeran atsedena izango du Bergarak Aratusteak direla eta. Hurrengo partidua Donostian izango dute, Kostkas taldearen aurka.

Honako hauek izan ziren zapatuan kantxaratutako jokalariai: David Urbina (22 puntu), Mikel Etxeberria (8), Alfonso Romera (10), Gorka Eraña (4), Ugutz Basauri (13), Gorka Lagoma (2), Jesus Morais (15), Mikel Larrañaga (4), Jorge Morais (1) eta Iban Alonso (4 puntu).

Igoera fasean zortzi talde dira, eta aurreneko hirurak izango dira lehen maila probintzialera igoko direnak. Oraingoz, begararrak indartsu dira.

GAZTE TALDEAK GALDU

Bestalde, Ramon Condek eta Jokin Perezek zuzentzen duten gazte taldeak 54-56 galdu zuten domeka eguerdian Zarautzen aurka. Gazte taldeak azken hiru partiduak jarraian galdu ditu.



Senior saskibaloit taldea mailaz igotzeko faboritoen artean dago.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

Amilotox-Kanpazar	1-7
A Ze Flaxa-Bicip. Igartua	11-2
Amilotox-Bicip. Igartua	4-10
A Ze Flaxa-Komando Piperrak	8-3
Torrekua-Bar Ugarte	3-26
Agirrebeña-Bar Ganbara	7-2

B MULTZOA

Amoskibar-Etengabe	17-2
Bar Aterpe-Txipiron	0-7
Bar Canalejas-Etengabe	22-3
THT-Amoskibar	2-5
Irubide-Bar Bedarreta	3-12

PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

09:30: K. Piperrak-Agirrebeña. **Bar Ugarte**
10:30: Bar Ugarte-Eri. **Agirrebeña**

ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: Ortzi-Dedo Pafarru. **Bar Ganbara**
17:00: Bar Ganbara-Mongatxurak. **Patxar.**
18:00: Patxaran-Artusamak. **Mongatxurak**

DOMEKAN, KANPOAN

9:30: Irubide-Txipiron. **Timofonika**
10:30: Errotagain-Timofonika. **Pagomendi**
11:30: Argandolas-Pagomendi. **Bedarreta**
12:30: Vacalouras-Bar Bedarreta. **Argando.**

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Bar Canalejas-THT. **Amoskibar**
17:00: Errotagain-Timofonika. **Pagomendi**
18:00: Argandolas-Pagomendi. **Bedarreta**
19:00: Bar Bedarreta-Vacalouras. **Argandol.**

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	40	17
2. Bar Ugarte	37	16
3. Mongatxurak	36	16
4. Eri	28	16
5. Agirrebeña jätetxea	27	16
6. Kanpazar	23	17
7. Komando Piperrak	17	17
8. Torrekua	14	17
9. Bar Ganbara	10	15
10. Biciprecisión Igartua	7	16
11. Amilotox	5	17

B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	40	14
2. Bar Canalejas	29	14
3. Bar Aterpe	24	14
4. THT	20	14
5. Irubide	19	14
6. Vacalouras	19	14
7. Amoskibar	18	14
8. Txipiron	14	14
9. Artekale pizzeria	12	14
10. Etengabe	-3	14

C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	36	12
2. Artusamak	25	12
3. Bayer	24	13
4. Dedo Pafarru	22	13
5. Argandolas	22	13
6. Pagomendi	18	12
7. Ortzi	10	13
8. Patxaran	6	12
9. Timofonika Team	3	12
10. Bildurbarek	0	0

GAINBEGIRADA

FUTBOLA

Bergarako Peña Athleticen Valladolidera irteera egingo dute martxoaren 24an

Bergarako Peña Athletic taldeak, datorren martxoaren 24an Valladolid-Athletic partidua ikustera joateko irteera antolatu du. Irteera, egunean bertan egingo dute, goizez, eta partidua amaitutakoan itzuliko dira Bergarara. Interesatuek Toki-Ona bodegoian eman dezakete izena. Bidaiaren prezioa 6 eurotako da Peñako bazkideendako, eta 18 eurotako gainerakoendako. Kopuru horri sarreraren prezioa gehitu behar zaio. Sarrerak 24 euro inguru balio izango duela adierazi dute Peñako arduradunek. Izena emateko epea martxoaren 10era arte izango da zabalik Toki-Ona bodegoian.

PILOTA

Bergarak kadete mailako partidua galdu eta seniorretan irabazi Debarroko txapelketan

Debarroko Txapelketaren barruan, Mikel Salegik eta Ibai Altunak kadete mailako partidua galdu zuten Olaldeko bikotearen aurka (12-22) martitzenean, Udal Pilotalekuan. Ander Muguruzak eta Igor Gutierrez, berriz, 22-5 nagusitu zitzaizen antzularrei senior mailan. Bestalde, gaur, egubakoitza, Udaberriko Txapelketako partidua izango dira Angiozarko Arbiaska pilotalekuan, 19:30etik aurrera.

ESKUBALOIA

Senior taldeak lidertza jokoan izango du domekan Egialderen aurka, Labegaraietan

Begarako senior eskubaloia taldeak Legazpiko Egialderen aurka jokatuko du domekan, Kiroldegian, 10:00etan. Bergararrak sailkapeneko lehen postuan dira, eta bi punturen alde ateratzen diete legazpiarrei. Liga amaitzeko lau partidu besterik ez dira falta, eta Edu Orgazek zuzentzen duen taldeak igoera fasea jokatzekeko urrats garrantzitsua eman dezake domekan.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Urola
Ohorezko mailako gazteak. Zapata. 16:30. Ipintza.

ESKUBALOIA

Bergara-Egialde
Senior mutilak. Domeka. 10:00. Kiroldegia.

PILOTA

Udaberriko Txapelketa
Bergara-Tolosa (2. mailako kadeteak)
Bergara-Añorga (Lehen mailako gazteak)
Bergara-Añorga (Lehen mailako seniorrak)
Egubakoitza, otsailak 8, 19:30. Angiozarko Arbiaska pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 3 Urola 1 (Preferente maila)
Bergara 0 Orioko 1 (Lehen erregionala)
Bergara 0 Urola 1 (Neskak)
Hernani 0 Bergara 6 (Ohorezko m., gazteak)
Bergara 0 Billabona 5 (Lehen m., gazteak)
Aloña Mendi 1 Bergara 2 (Ohore. mail. kadeteak)
Urki 4 Bergara 1 (2. mail. kadeteak)
Behobia 3 Bergara 3 (Infantilak)

ESKUBALOIA

Loiola 28 Bergara 31 (Senior mutilak)
Bergara 32 Urola 28 (Gazte mutilak)
Bergara 21 Hondarribia 22 (Kadete mutilak)

SASKIBALOIA

Bergara 83 Alde Zaharra 60 (Senior mutilak)
Bergara 54 Zarautz 56 (Gazte mutilak)



PILOTA

Debarroko Txapelketa
Bergara 12-Antzuola 22 (Kadeteak)
Bergara 22-Antzuola 5 (Seniorrak)

UGARTE
A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Zuen zerbitzura!

San Juan, 1 A
BERGARA
Tel./ Faxe:
943 76 54 91



ELKARRIZKETA

ROBERTO IZAGIRRE/HERRIKO GUTUN ONENARI SARIA AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETAN

“Maitasun kontuetan ez gara gu geu izatera ausartzen, naturalak izatera ausartzen”

MONIKA BELASTEGI

Roberto Izagirrek jaso du herriko gutun onenaren saria Amodiozko Gutunen lehiaketan. Bere gutunaren eta maitasunaren inguruan hainbat gauza kontatu dizkigu.

Pozik Bergarako gutun onenaren saria jaso duzula-ko?

Bai, oso pozik. Dena den hori irabazita neukan, eta beste bat irabaztea nahi nuen. Ez, oso pozik nago. Saria jasotzen duzunean, zure lana ondo eginda ote dagoen edo pentsatzen duzu.

Iaz jaso zenuen, hain justu, herriko onenaren saria.

Bai. Eta aurretik beste bi sari ere jaso izan ditut: duela bi urte bigarren saria, eta horren aurretik akzesit bat ere jaso nuen.

Lau sari, beraz. Asko gustatzen zaizu honelako gutunak idaztea?

Gozada bat da. Idatzi aurretik zertaz idatzi behar duzun pentsatzea gozada bat da, idazten hastea ere bai, eta bukatzea are gehiago.

Aurten idatzi duzun gutun horretako istorioa zein da?

Neska bikotetik kanpoko beste tipo batekin enroilatu da eta banatu egin dira. Handik denboralditxo batera bikoteko tipoak berriz idatzi dio neskari. Horixe da istorioaren ardatza.

Ezer konkretuan oinarritu zara istorioa asmatzeko?

Ez, besterik gabe atera zitzaidan. Mendian ibiltzea izugarri gustatzen zait, eta horrek pentsatzeko denbora asko ematen dizu.

Bueno, horrelako kasu antzerako bat ere izan dugu nahiko gertu. Ezagun batzuei gertatu zaie, baina aldrebes, enroilatu dena bikoteko mutila izan da.

Gutunean zenbat dago Robertoz?

Horrelako gauzetan beti egoten da norbere ikutua edo pentsatzeko modua islatuta. Nik uste azkenean gutunean islatuta agertzen den jokaera norberarena dela, idazlearena.

Gutunaren amaieran gutuna



MONIKA BELASTEGI

idatzi izana terapiatzat jotzen du protagonistak. Zuretzat ere terapeutikoa da idaztea?

Gozada bat da, baina terapeutikoa ez. Sarritan da zure

burua ipini egoera arraro edo berezi batean eta zer egingo zenukeen pentsatzea. Eta erabaki hola edo hala jokatu zenukeela eta hori idaztea.

Idaztea, hitz egitea bezala oso

lagungarriak dira biak. Azkenean barruan geratzen denak barrua jaten dizu.

Lehiaketarako gutunaz gain, normalean ere idazten duzu?

Bai. Bi pertsona, nahiko hurbilekoak espexera sartu dituzte duela gutxi, eta haiei bidaltzen dizkiet gutunak. Barruan dagoen jendarekin karteatzen naiz, eta horrelako egoeran daudenek asko eskertzen dute, gainera. Hilean behin edo idazten diet barruan dauden lagunei.

Zuk orain aipatutako egoera horretan bai, baina, gaur egun, bestela, ez da oso ohikoa gutunak idaztea.

Ez, ez da. Oso kuriooa da. Nik idatzi izan diot hemengo lagun bati gutunen bat. Kristoren ilusioa egiten dio karta jasotzeak, baina telefonoz deitzen dizute esateko zer nolako ilusioa egin dien. Ez didate gutunez erantzun, telefonoz baizik.

Sentimenduak adierazteko errazagoa da gutun bat idaztea aurrez aurre esatea baino?

Nire gutuneko protagonista Enekorentzat, gutuna idaztea izan da sendatzen hasteko lehen urratsa. Sentitzen duena aurrez aurre esatea sendatuta dagoen seinale izango litzateke.

Gauzak gutunez adierazteko aurrez aurre esatea baino errazagoa den ala ez, ba, ez dut uste. Idazteak pentsatzeko denbora ematen dizu, eta hitz egiteak ez, gauzak datozen bezala botatzen ditugu, normalean. Eta batzuetan nahiko zakar aritzen gara, patxadarik gabe, eta direnak eta ez direnak botatzen ditugu. Horixe da nire gutuneko protagonistari. Enekori, gertatu zitzaiona; neska-lagunak beste mutil bat ezagutu zuela esan zionean direnak eta ez direnak esan zituela.

Amodio kontuetan, eta zehatzago amodiozko gutuna idaztean ez gara pixka bat orteratzkoak izaten?

Bai. Nik adibidez kartak idazten ditudanean anaiari pasatzen dizkiot irakurtzeko, eta harek kristoren barre algarak egiten ditu. Dena den nik ez dakit orterak garen ala benetan ez garen ausartzen horrelakoak idaztera.

Oraindik ere, “maite zaitut” esatea modu normal batean arraroa da. Gizonon artean, esaterako, pertsonen bat maite dugula aitortzea oraindik oso arraroa da. Ez dakit orterak garen, nik esango nuke oso belurtiak garena, eta seguruenik, aurtengo lehiaketan ere hogeita bost urtetik gorako en oso gutun gutxi egongo dira. Ez dakit zergatik. Agian da adinarekin naturaltasuna galtzen dugulako. Edo koraza sendoagoa dugula gauza gehiago ezkutatzen. Baina maitasun kontuetan bai uste dut ez garena ausartzen gu geu izaten, naturalak izaten. **Datorren urtean ere aurkeztuko zara?**

Ez dakit. Aurten zerbaitek ezberdina egin nahi nuen, hau da, bi pertsonaren artean idaztea gutuna, batek hasi eta besteak bukatu, baina ez dut laguntzarik aurkitu. Agian datorren urtean hori egingo dut.

Gutuneko pasarte bat

“(…) Maite zaitut! zelan eta zertarako ezkutatu ukaezina. Edozer egingo nuke, gainera, berriro itzultzeko antzinako egoerara, infernua zelakoan, paradisia galdu bainuen orduan. Ez da posible, ordea. Jainkoari edo dena delakoari, mundua, bizitza sortu zuenean, ordenadoreek duten “Supr” eta “desegin” teklak jartzea ahaztu zitzaion, egindakoak eginda, atzera bueltarik gabeko gurgila zelakoan bizitza. Gaurko honetan horren aurka jarri naiz eta nire, gure alde egin behar dut.

Zoritxarreko udaberri hasiera hartan jasotako uztaz geroztik gauza asko ikasi ditut. Badakit jakin otutako guztiak esaten duenak, bihotz amorratuak sortarazitako oro galbahetu barik jaurtitzen duenak, nahigabeko asko entzuteko prest egon behar duela. Hori berori gertatu zaitzaidan niri ere. Barrenean zeneraman zama astuna horren ausart mahai gainera irauli zenuenean, ez nuen jakin egoki erantzuten. Esklusibidadea galtzea –une berezi baten soilik izan arren– jasanezina iruditu zitzaidan momentuan. Ordura arteko hainbat teoria, jende aurrean hainbestetan defendatutako ideia liberal haiek, guztiak, bat-batean hankaz gora joan zitzaizkidan eta hainbat urtetan jasotako eta hor nonbait, buruaren edo bihotzaren txoko ezkuturen baten gordetako gizon basapiztiaren sena agertu zitzaidan (…)

“Gutuna hasi aurretik, zertaz idatzi behar duzun pentsatzea gozada bat da”

“Oraindik ere, “maite zaitut” hitzak modu normal batean esatea oso gauza arraroa da”

“Gutunetan islatuta agertzen diren jokaerak idatzi dituenarenak direla uste dut”

E, TXO!

**KUADRILATEGIKOAK
MOZORROTUTA**

Joan den astean, zapatuan, mozorroak prestatzen jardun zuten Kuadrilategiko gazteek. Oraingo zapatuan (bihar), mozorro festa egingo dute prestatu zituzten mozorroekin, eta kalera irtengo dira. Horretarako, astero moduan, Zabalotegin elkartuko dira, Udal Euskaltegiaren egoitzan, 15:30ean. Hortaz, badakizue, animatu eta ospatu aratusteak!

**MOZORRO FESTA
GAZTETXEAN**

Zapatuan, otsailaren 10ean, mozorro festa egingo dute gaztetxean, gauerdian hasita. Karaokea izango da festa horretan, baita koadrilen saioak ere. Oraindik baduzue zuek ere zapatu gauerako zuen saioa prestatzeko aukera.

**LAUGARREN 'ASTINDU'
KALEAN DA**

Gazte Asanbladaren *Astindu* aldizkariaren laugarren alea gaur, egubakoitza, kaleratuko dute. Herriko hainbat tabernatan eta gaztetxean dituzue eskuragarri. Ohiko sailez gain (agenda, albisteak, poesia, drogak, eta abar), Itoizko urtegiaren gaineko eta AHTren gaineko erreportajeak egin dituzte.

EGK INTERNETEN

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin *Berriz Berri* buletina kaleratzen du hilero. Gazteekin lotutako hainbat berri eskaintzen dituzte buletin horretan: ikastaroak, tailerrak, topaketak, eta abar. Buletin hori bera interneten ere irakur dezakegu: www.egk.org.

GUREGAIK/ TATUAJEAK

Adin guztietara heltzen den moda da tatuajea

AINTZANE IRIZAR

Gero eta jende gehiagok egiten ditu tatuajeak, badirudi boladan dagoela. Tatuajeak egiten dituzten gehientsuenak gazteak dira. Bergaran badago tatuajeak egiten dituen toki bat, Totem, hain justu.

Bergarako tatuaje egileen esanetan, adin guztietako jendeak egiten ditu tatuajeak, baina gazteak izaten dira gehientsuenak.

Sorbaldan eta gerrialdean izaten dira tatuajeak egiteko gehien aukeratzen diren tokiak, baina bestelakoak ere asko izaten dira.

Tatuatu nahi dugun irudia ondo aukeratu behar da, oso garrantzitsua da hori; izan ere,

bizi osoan, egunero, gure gorputzean ikusiko dugu eta tatuaje hori. Irudiak aukeratzeko *book* ak izaten dituzte tatuaje egileek, handik irudiak aukeratzeko, baina norberak nahi duen edozein irudi ere egiten dute. Gehienbat, irudi tribalak, abstraktuak, egiten dira.

Prezioak tatuajeen arabera koak dira: merkeenak 35 euro inguru balio izaten du.

Tatuaje bat egin aurretik, kontuan hartu behar dugu, bestalde, tatuaje egilea ondo aukeratu behar dugula; diplomaduna izan dadila eta beharrezko baimen guztiak izan ditzala.

Azkenik, esan behar da adin txikikoek gurasoen baimena izan behar dutela tatuajeak egiteko.



Gehienbat, irudi tribalak, abstraktuak tatuatzen dituzte.

LOTSABARIK/ Idoia Elortza

"Batzuetan larregi egiten dut berba"

AINTZANE IRIZAR

Bertozalea dugu Idoia; ez digu bertorik bota, baina jakin badakigu bertotan aritzen dela. Ez da hor bukatzen haren artista sena: izugarri gustatzen zaio antzeztea, pertsonaia ezagunak imitatzea, esaterako.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Aktore; beti gustatu izan zait antzerkia, baita neuk antzeztea ere, ezagunak imitatzea... Irakasle ere izan nahi nuke.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Ez dut ikusi ere egiten! Bueno, irakasle moduan lanean, ins-

tituturen batean-edo...

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Isilik egoteko aukerarik ez galtzeko; izan ere, asko berba egiten dut, larregi batzuetan.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Horri erantzun egin behar dio? Gero gurasoek irakurri egingo dute elkarrizketa hau, e!

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Bata bestearenganako errespetuari.

• Zure bertute bat?

Bertuteak batzuetan kalterako ere izaten dira. Nire bertute bat da alai naizela eta barre asko egiten dudala; horrek alde txarra

ere badu: gerta daiteke egin behar ez denean ere barre egitea.

• Eta hutsune bat?

Batzuetan ezkorra naizela.

• Zerk amorratzen zaitu?

Norbaitek gezurra esateak eta atzetik gaizki esaka ibiltzeak, gauzak aurpegira ez esateak.

• Zure gorputzeko atalik gus-tukoena?

Eskumako eskuko erdiko atzamarreko azazkala.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Berba egiteko moduari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko? Ezer ere ez.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Hori ez dizut kontatuko.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Bertsolaritza eta antzerkia • LIBURU BAT: '110. Street-eko geltokia', Iñaki Zabaletarena • FILM BAT: 'Pretty woman' • MUSIKA TALDEA: Gozategi eta Kaxiano • KIROL TALDEA: Reala


TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez



ZAHARREN ETXETIK



Hogeita bost emakumek dihardute boluntario lanak egiten Mizpirualden. Argazkian, boluntario talde bat.



Hamabi lagun San Joxepeko yoga ikastaroan

Hamabi emakumek dihardute San Joxepeko yoga ikastaroan. Eskolak astelehenetan eta eguaztenetan izaten dira, 11:00etatik 12:30era bitartean. Urriari hasi zuten aurtengo ikastaroa eta San Juanak bitartean izango dira eskolak. Aurreko urtetan moduan, Juan Luis Armendia arrasatearra da irakaslea. Armendiak esperientzia zabala du yogaren sekretuak erakusteko orduan, Bergarako Udalak antolatutako ikastaroetan ere irakasle lanetan ibiltzen da-eta. Armendiak sei bat urte daramatza San Joxepen eskolak ematen.

Boluntarioen lana, ezinbestekoa Mizpirualdeko bizilagunendako

EDU MENDIBIL

Alazne Irazabal Mizpirualdeko gizarte laguntzaileak behin eta berriro azpimarratzen du boluntarioek egoitzan egiten duten lanaren garrantzia. Gaur egun, hogeita bost emakumek dihardute, musu truk, laguntza ematen.

Joan den eguenean, urtarilaren 31n, hilean urteak egin zituzten Mizpirualdeko bizilagunen omenezko txokolate jana izan zen zaharren egoitzan. Mizpirualdeko langileez gain, emakume talde bat ere izan zen bertan laguntza eskaintzen. Alazne Irazabalen arabera, "talde batek isilean egiten duen lana da, benetan eskeretzekoa, besteak beste, bizilagunen eta herritarren arteko loturari eusten zaiolako, neurri handi baten, boluntarioei esker".

Hiru boluntario mota hurre-ratzen dira Mizpirualderá: bate-tik, San Joxepe erretiratu-en elkartetik sortutako talde bat dago; bestetik, herriko parroki-

en bitartez doazenak; eta, azkenik, euren kabuz laguntza ematen dutenak ere badira. Guztira, esan bezala, 25 emakumek dihardute boluntario lanetan. Guztiak emakumeak ditugu.

Mizpirualden egiten diren ekitaldietan laguntza emateaz gain, bizilagunendako askotan

oso garrantzitsua da haien lagun egiteko norbait alboan izatea. Alaznek azaldu digunez, "ordezkatu ezin den lana egiten dute boluntarioek. Zenbaitetan lan profesionalak ez dizu uzten familiak edo boluntarioek egiten duten moduko lana eskaintzerik. Helburu nagusia Mizpirualdeko bizilagunei giza laguntza ematea da, eta urte osoan boluntarioak laguntzeko prest izatea luxu handia da guretako. Zoritxarrez, solidaritatea eta horren tankerako balioak galduz doaz, baina hona laguntzera etortzen direnendako lan aberasgarria da; besteen alde zerbait egitearren gustura ari dira hemen".

MOZORROAK INAUTERIETAN

Bestalde, datorren martitzenean, otsailaren 12an, Inauteriak ospatuko dituzte Mizpirualde egoitzan. Arratsaldean, 16:30etik aurrera, askari berezia egingo dute, eta jarraian, mozorro dantzaldia izango da egoitzako jangelan. Eta dantzaldiaren ondoren, mozorro onenendako sariak izango dira.

Isilean ematen den laguntza

Mizpirualden betidanik egon dira ezereen truke laguntza eman izan duten boluntarioak. Isilean egiten den lan horrek izugarriko garrantzia dauka bertako bizilagunendako. Era berean, Antzuolako, Elgetako eta Bergarako elkarte eta kultura taldeen laguntza ere azpimarratzekoa da, egoitzari bizitasun gehiago emateko orduan.

ZAHARREN ETXETIK

Jesus Ruiz de Azua "Kapaña"

ERRETRATUA

Ehungintzan lanean izan ondoren, duela bi urte erretiratu zen, 62 urterekin. Joan den iraila ezker, San Joxepeko harrera bulegoan izaten da goizero.

Zer-nolako lana egiten duzu San Joxepen?

Batik bat, kuotak kobratu eta bazkide berrien txartelak egiteaz arduratzen naiz. Goizetan izaten naiz San Joxepeko harrera gelan. Arratsalderetan Gorrara joaten naiz askotan: Loidi Mendin txabola daukagu, eta gustura asko ibiltzen naiz han inguruan.

Zer moduz erretiroa?

Hainbat lekutan ibilitakoa naiz lanean, betiere ehungintzan, eta 62 urterekin erretiratu nintzen. Oso gustura nago; ez dago halako saririk. Zenbat bazkide zarete San



Joxepen gaur egun?

Bazkide kopuruak nabarmen egin du gora. Orain, 1.950 bazkide inguru izango gara. Parte hartzen duzu San Joxepeko ekitaldietan?

Bai. Inauterietan ere ondo jan eta ea dantzan egiten dugun. Ikusiko dugu mozorrotzen garen.

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA


MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA

JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialErrekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

Mujika gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
TostoiakArtekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da San Kristobalera bideko baserri honen izena?

GALDE DEBALDE

1.

Zein da Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek domekan eskainiko duten ikuskizuna?

- A/ Mugarik gabeko pailazoak.
- B/ Takolo, Pirritx eta Porrotx Nikaraguan.
- C/ Aupa Kintxo!

2.

Amodiozko gutunen lehiaketan, nor izan da Bergarako onena?

- A/ Jon Sanchez.
- B/ Roberto Izagirre.
- C/ Bertol Arrieta.

3.

Zein da Bergara K.E.ko senior mailako saskibalo taldeko entrenatzailea?

- A/ David Urbina.
- B/ Alex Familiar.
- C/ Ramon Conde.



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

CRISTINA IBARGUREN entzatzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Cristinari! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Miguel Okina / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

La Asturiana babarruna

Kilo bateko poltsa.

1,99 €

331 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARGAZKILARIA

BERGARAKO ZUHAITZAK

Makala

(*Populus sp*)

MAITANE ARIZABALETA

Zuhaitz luze eta meharra. Enborra lodia eta zuzena da eta azala, grisaska eta leuna hasieran, ondoren berriz, ilunagoa eta zartatua. Otsail-martxoan loratzen da, eta apiril-maiatz aldera, landak eta herriak betetzen dituzten kotoi antzeko milaka hazi jaurtitzen ditu.

Ur bazterrei loturik agertzen da, lur aske eta freskoetan. Argi asko behar duenez, ez du onartzen beste zuhaitzen itzalik. Askotan ikusi ohi da, ezponda eta bizkargune hezeetan, urtegi zein ibai ertzetan, eta bide edo errepide ondoan. Bergaran, Torrekuian ikus ditzakegu.

Zuhaitz hau azkar hazten da, eta egurra, biguna, arina, erresistentzia gutxikoa eta hauskorra da. Askotan erabiltzen da oholak, paper pasta, pospoloak eta txotxak egiteko.

Apaingarri gisa ere erabiltzen den espeziea izan arren, lepatzea ez du ondo onartzen, poliki-poliki usteltzen joaten baita. Bestalde, makal ilarak landatu nahi izanez gero, kontuan hartu behar da zuhaitz honek 30 metroko altuera har dezakeela, hori dela eta etxeetatik oso gertu ez jartzea gomendatzen da.

“Egurra arina duenez, oholak, paper pasta, pospoloak eta txotxak egiteko erabiltzen da”

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903



BERGARA
Uxue Olaziregi
Otsailaren 13an 7 urte.
Urte askotarako! Irati,
Ainhoa, aita eta ama.



BERGARA
Igor Granados
Otsailaren 11n 23 urte.
Urte askotarako!
Maite eta Arrate.



BERGARA
Mikel Mengual
Otsailaren 9an 7 urte.
Urte askotarako!
Ander eta familia.



BERGARA
Beñat Rezusta
Otsailaren 13an 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Aritz.



BERGARA
Kevin Conde
Otsailaren 3an 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta arreba.



BERGARA
Sandra Peter
Otsailaren 10ean 25 urte.
Urte askotarako eta ondo
pasa! Etxeokak.



BERGARA
Andoni Gallastegi
Otsailaren 7an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Selene Perez
Otsailaren 5ean 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Maria Agirrezabal
Otsailaren 8an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Izar Odriozola
Otsailaren 9an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Gorka Kortabarria
Otsailaren 7an 4 urte.
Urte askotarako!
Ane eta etxeokak.



BERGARA
Leire Araiztegi
Otsailaren 10ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Asier Perez
Otsailaren 10ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
June Alberdi
Otsailaren 9an 2 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
neba Xabier.



BERGARA
Miren Ignacio
Otsailaren 9an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta lagunak.



BERGARA
Saray Plazas
Otsailaren 13an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Yaiza.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra!
Doan!

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den
argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu,
zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino
bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

BABESLEA

Zorionak zUri...

**KARPA ETA KALEFAKZIOA
URTEBETETZE EGUNA OSPATZEKO**

**MENU AUKERA ZABALA
ZURE AURREKONTURA EGOKITUTA**

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



BERGARA
Aritz Oiarzabal
Otsailaren 13an 4 urte.
Urte askotarako!
Nora.



BERGARA
Nora Casquero
Otsailaren 15ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta Aritz.



BERGARA
Jose Blazquez
Otsailaren 14an
urtebetetzea. Zorionak!
Ama eta anaia.



BERGARA
Ander Orbegozo
Otsailaren 15ean 9 urte.
Zorionak eta muxu bat!
Etxeokak eta Kiñu.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baitxungo

Ur-bide

ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374-55

BERGARA

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala) 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

GINEKOLOGOA

SERRANO Jose Ramon Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irupe Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43

BELASTEGI Mariasun Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

ALTUBE Edurne Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

JOKABIDEAREN PSIKOLOGIako KABINETEA (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 8a / 100. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com



AINTZANE IRIZAR

Unamuno, Gallastegi eta Ustarrotz, inaugurazio-ekitaldian.



AINTZANE IRIZAR

Ingurua urbanizatzea besterik ez da falta Oларanen.

Oларan etxea inauguratu dute, eta ikusgai izango da domekan

AINTZANE IRIZAR

Goizeko hamarretan hasi zen Oларan etxearen inaugurazio ekitaldia. Ohiko zinta moztearen ondoren, inauguratuta geratu zen Oларan. Horrela, etxea zelan geratu den ikusi ahal izan zuten han batutakoek, eta ekitaldiaren amaieran mokadutxoa hartu zuten.

Debagoieneko Lantegi Eskolako ikasleek berriro dute Oларan etxearen zati handiena. INEMen eta Debagoieneko Mankomunitate-

aren hitzarmenaren ondorio izan da Lantegi Eskolaren proiektu hori. Abenduan amaitu zuten euren lanarekin, eta martitzen goizean inauguratu zuten. Ohiko zinta moztearen ondoren, etxea barrutik zelan geratu den ikusteko aukera izan zuten han batu zirenek. Aurretik, Mireia Unamuno alkateak, Victoriano Gallastegi Mankomunitateko presidenteak eta Pedro Ustarrotz INEMeko zuzendariak hitzaldia egin zuten.

Horiez gain, han izan ziren, besteak beste, herriko enpre-

tako ordezkariak, Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak, Lantegi Eskolako hainbat ikasle eta irakasle, herriko zinegotziak, eta baita ibarreko alkate gehienak ere.

Lehendabiziko solairua hitzaldi eta erakusketa areto moduan erabiliko du Antzuolako Udalak. Gainerako hiru solairuak, berriz, Debagoieneko Mankomunitatearen esku geratuko dira, eta enpresa ekimenak aurrera eraman nahi dituzten gazteendako hainbat bulego egingo dituzte hantxe.

DOMEKAN, HERRITARRENDAKO ZABALIK
Inaugurazio egunean, herritarrek ere aukera izan zuten Oларan etxe berriua ikusteko, eta izan zen etxea zelan geratu den ikustera hurreratu zenik. Dotorre geratu dela entzun genuen herritarrengandik. Baina etzi, domekan, zabalik izango da, nahi duen guztiak ikusi ahal izateko. Egurdian, 13:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, berriz, 19:00etatik 20:00etara.

Era berean, domekan, berriro lanaren prozesuari buruzko erakusketa ikusi ahal izango da.

LABUR

Zapatuan ospatuko dute Santa Ageda Galartza auzoan

Bihar, zapatua, ospatuko dute Santa Ageda Galartzan. Egurdiko hamabietan meza izango dute, eta gero, salda eta txorizoa emango diete han batutakoek. Aurtengo albis-tea da, hamazazpi urte eta gero, Santa Anaren irudia ekarriko dutela; iluntzean, baina, elizbarrutiko museora itzuli-ko dute.

Simon Artolazabal organu jotzaile eta musikaria hil da

Martitzenean hil zen Simon. Herriko musikari gehien irakasle izan zen; 1932an hasi zen, eta ez zion laga 1992ra arte. Hura izan zen, gainera, herriko organo jotzailea 1940a ezkerro, baita parrokiako abesbatza bultzatu zuena ere.

Eguazteneko elizkizunean *Gernika* hileta martxa eskaini zioten txistulariek eta metal boskoteak, eta Oinari-neko dantza taldekoek Oho-rezko Aureskua egin zioten.



Simon, iaz egindako elkarrizketan.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teillatuak
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

GoROSTI

Taberna

943 76 62 96
Zurrategi plaza
ANTZUOLA

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIAK
DYA 943 78 71 57
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Medikua 943 76 62 23
Praktikantea 943 76 63 80
Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40

UDALA
Udaletxea 943 76 62 46
Liburutegia 943 76 60 65

BESTELAKOAK
Idolaz 943 78 60 12
Herri ikastetxea 943 76 62 68
Jubilatu en elkarte 943 76 62 71
Abadetxea 943 76 64 16
Anelkar (Kontxi) 943 78 70 65
Taxiak:
Antonio Fernández 669 15 65 40
Jesus M. Fernández 607 31 85 60

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA
Lanegun eta zapatuetan: 19:30
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA
Domeka eta jaiegunetan: 10:00

OHARRAK

ARROLAREN IRTEERAK

Datorren domekarako, otsailak 17, gaztetxoendako irteera antolatu du Arrolak: Kanpazarretik Besaidera, eta handik Udalara. Martitzenean, otsailak 12, duzue izena emateko aukera, 19:00etatik 20:00etara. Otsailaren 23an, berriz, Candanchura joango dira eskiatzera; zapatu goizean joan eta domekan itzuliko dira. Irteera horretarako, 55 lagunendako tokia dago. Izena emateko egunak otsailaren 12a eta 13a izango dira, 19:00etatik 20:00etara.

ANELKARREN DEIA

Anelkarrek jakinarazi digu, Donostiako Elizbarrutiak udan Hirugarren Mundura lanera joateko deialdia egin duela. Eritrea (Afrika), Mexiko eta Ekuadorrerako lan-taldeak antolatu nahi dituzte. Izena emateko azken eguna otsailaren 22a da, Caritaseko Donostiako bulegoan (edo 943 44 07 44 telefono zenbakian).

BASERRIZBASERRI/ Eguzkitza



ITURRI OSPETSUA EGUZKITZAN Galartzako baserri honen lehen aipamena 1391. urtekoa da. Kontuan hartu behar dugu beste Eguzkitza bat badagoela Irimoegi auzoan. XVIII. mendean ospetsua izan zen Eguzkitza, han ondoan zegoen iturri bateko uragatik: badirudi, sendagarri zela ur hori, hainbat testuren arabera. Larramendik ere, bere "Corografia"n, Zestoa eta Altzolako uren pareko jartzen du Eguzkitzako iturrikoa, eta "aguas vitrioladas" zirela aipatzen zuen; hau da, sulfato ugari zeukan, arrautza ustel usainduna. Gaur egun ez dago iturri horren arrastorik. Bi bizitzatako etxea da, baina gaur egun, 1970etik, ez da inor bizi baserrian./AINTZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

ANTZUOLAKO HIZKERAN

ESAMOLDEA

• **IPURDIAN ZULUA EDUKI**
Denok dugula zerbait esan nahi du, hutsik ez duenik ez dagoela.

- *Hori da mutila guapua, majua, lan ona, kotxia...*
- *Edukiko dau horrek be ipurdian zulua!*

ATSOTITZA

• **Harrixarekin burua jo, buruarekin harrixa jo, berdin.**

Esaterako, nik olio eta gatzat bota behar baditut lapikora, berdin izango da lehenengo zein bota, biak botako ditut-eta.

HITZAK

• DONTZA

Pertsona astuna; emakumez-ko ez esaten da. Gauza bati buruz jardun eta jardun egiten duen emakume aspergarriagatik esan ohi da.

Dontzia da gero gauzia, beti kontu berdina esaten!

• EURI KIXI

Euri txikia, euri xehea, ari denean, euri tanta txikiak botatzen dituen erabili ohi da *euri kixi*.

Euri kixiak hasten ditte. / Ez dakit eurixa ez daben egin biher, euri kixin batek bekokixan jo nau-ta.

Jone Larrañagaren 'Antzuolako hizkera' liburutik

ATREBENTZIA EZ PADA/ Zer egin biharko lukie Santa Anaren irudixakin?



JUAN JOSE JAUREGI
52 urte

Berriz lapurtuko ete daben bildurra edukiko dabe. Bestela, ondo egongo litzake bere tokira bueltatzia, baiña segurtasun neurrixak hartuta.



IÑAKI SUDUPE
51 urte

Neregaittik, nahi dabe-na; neri berdina dost irudixa han edo hemen egon. Dana dala, hobe izango litzake bere jatorrizko tokian jartzia berriz.



MARIPI JAUREGI
38 urte

Bere tokian gordetzia izango litzake onena, baiña ikusitta zer pasatu zan, ba beste nunbait gorde biharko lukie, baiña hori bai, herrixan bertan.



ISABEL GARCIA
48 urte

Ermittara bertara bueltatu biharko lukie, bere tokia hori da-eta. Dana dala, segurtasun neurrixak hartu biharko lukie, alarmia jarri-edo...



GABINA LEON
55 urte

Bere tokira bueltatu biharko lukie, baiña kontuan hartuta lapurtu egin zebela, segurtasun neurrixak hartu biharko lukie.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatzea eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164

Juan Cruz ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. ☎ 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko otsailaren 8a / 86. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Mozorroak gertu, doinu flamenkoek alaitutako Inauteriak hasteko

OXEL EROSTARBE

Iritsi dira Inauteriak! Herriko neska-mutikoak, mozorroak jantzita, kalean gora eta behera ibiliko dira honezkero. Arratsalde osoan hainbat ekintza izango dira beraiantzat. Gauean, nagusientzako herri afaria eta Mal de Ojo-ren kontzertua.

Elgeta, mozorroz beteko da gaur. Izan ere, arratsaldean eskola umeek eta gauean nagusiek, Inauteriak ospatuko dituzte.

Bazkalostean, 14:30ean, eskolan izango dute hitzordua neska-mutikoek, izan ere hainbat jolas antolatuko dituzte beraiantzat. 16:00etan, merienda izango dute Ozkarbi elkartearen. Ondo merezitako merienda, Gabonetan eta Santa Ageda bezperan batutako dirua merienda hau egiteko izaten da eta.

Gauean, nagusien txanda izango da eta urtero bezala giro paregabea egotea espero dute Gaztetxeko kideek. Azken urteetan egin izan duten antzera, afaria antolatu dute. Afaria Bolatoki tabernan izango da, gaueko 21:30ean.



ARTXIBOA

Aurreko urteetan bezala, Mal de Ojo taldekoekin batera kantuan arituko denik izango da.

Gaua Mal de Ojo taldearen doinuek alaituko dute. Talde hau dagoeneko ezaguna da Elgetan. Doinu flamenkoak, rumbak euskaraz entzuteko aukera paregabea.

EZ DA KALE ANTZERKIRIK EGONGO

Gaur arratsalderako egitarauaren barruan, kale antzerkia antolatu zuen Kultura Batzordeak. Azken orduan, ordea, ekitaldi

hau kendu beharra izan dute. Markeliñekok, "KK" kale antzerki lana estreinatu behar zuten Elgetan. Zenbait arazo direla eta bertan behera geratu da antzezpena.

Urtero bezala, haurrentzako jolasak eta merienda izango dira arratsaldean

Inauterietako gaua, Mal de Ojo taldearen erritmo flamenkoek alaituko dute Gaztetxean

Markeliñek aurkeztu behar zuen "KK" lana bertan behera geratu da azken orduan

HERRITARREN HITZA / Iratxe Uzuriaga • Ikaslea

Herri txikietan ere jai giroa

Leerro hauetaz baliatuz, herrian, batzuetan ikusi eta ingurukoengandik askotan entzun ditudan aldaketak islatu nahi nituzke.

Ziur nago zuetako askok (nik bezala) noizbait, pentsatu izan duzuela Elgeta bezalako herri txiki batean, jai puntuale-tatik at, ez dela jai girorik izaten.

Gida baimena dutenak, lau gurgiletako edo gutxiagoko garraioak eskutan hartu eta hor abiatzen dira urruneko edo hurbileko inguruetara. Gehienetan alkoholak eta beste zenbait drogek guregan izaten duten eraginaz jabetu gabe.

Nola joan eta itzuli ez dakigunok ere hor ibiltzen gara harantz eta honantz, une batez besteen borondate onaren jabe izanez. Gure bizitza hauen eskuetan jartzen dugularik. Ezkutuan ere badira beste asko, inoiz izendatzen ez ditugunak baina gogoan dauzkagunak. Hauek, loa kentzen dien musika noten erritmora dantzatzaren diren galdera pila izaten dituzte buruan. Aldiz, gu



"Nahi badugu, herrian giroa sortu daitekeela ohartu garela uste dut"

etxera itzultzean lasaitasunez lo hartu eta loti eder bilakatzen diren hauek.

Batzuen lanaren eta beste batzuen gogoan emaitza, asteburu normaletan gure herriko kaleetan ikus daitekeela azaldu nahi nizuen. Herri txikietan jai girorik ez, esaldi hau gure irudipenen edota nagikeriaren ondorio dela uste dut. Aldaketa honen arrazoiak ugari izan daitezke, kanpora

irteteak daukan arriskuaz jabetu garela, herrian, nahi bada, giroa sortu daitekeela, alpertu egin garela eta nahiago dugula etxean jaia ospatu... Arrazoia zein den, bakoitzaren eskuetan uzten dut, bakoitzak hau irakurritakoan ere bere ideia sortuko du eta. Askok agian propagandatzat hartu duzue baina, ez dago intentzio horrekin idatzia, nire ideia edo hausnarketa hau azaldu nahi nizuen.

Zoriondu nahi nituzke hau aurrera bultzatzen saiatu direnak. Besteoi (tartean ni) pauso hauek positiboak direnez, jarraitzeko.

LABUR

Domekan batzarra egingo dute Gure Borda elkarteak

Asentzioko Gure Borda elkarteak kideek batzarra egingo dute domeka eguerdian. Urtero, Inauterietako domekan batzen dira, urtean izandako gorabeheren inguruan eztabaidatzeko.

Batzarra eta gero, herrira jaitsiko dira Gure Bordako kideak, izan ere, eguerdiko 14:00etan bazkaria izango dute Ozkarbi elkartearen.

Urtean bi aldiz batzeko ohitura daukate elkarteak. Pilarika egunean eta Inauterietako domekan.

IRAKURLIAREN TXOKUA

ELGETAKO UDALETIK ESPAÑOL HUTSIAN

Kartia irakurtzia eta ur freskodun baldekada bat jasotzia parekua izan ziran. Bueno, gizurra! Irakurtzen hasi besterik ez eta baldekada ura. Ezin sinistu orrixai bueltia emon eta euskeraz ezer be ez egotia. Amorruan amorruekin irakurtzen ezin segi eta idaztia pentsau ginuan:

Zer gabiz ba? Aurreraka edo atzeraka?

Ez dakigu zertan dabilen Udala euskeriak. Ez dogu ulertzen zergaitik izan dan eta zeinen kulpia dan be, baina espero dogu, billeria baino lehen hori kartioi (etxebizitzaren gainekua) euskeraz be jasotzia, euskera hutsian ez bada be.

Beste herri batzutan norberak aukeratzen dau zein hizkuntzatan bihar daben Udalarekiko jarduna. Gurian ez da horretarako aukerarik emon eta gainera ez doskue aukeratzen lagatzen orrixaren zein aldekoa nahixago dogun. Derrigortuta espainolez bizitzera!

Zorionez, hau kartiau idazten dogunok elebidunak gara, baina zer izango litzake aldrebes balitza? Imaginatzen dozue ixa herri osua espainola dan leku baten kartia ingelesez bialtzia? Ba gure kasuan iguala.

Ez dakit honek Udalok euskaraz bizi gura dogunoi inoiz kasurik egingo doskun, baiña guk halaxe eskatu gura dogu publikoki. Ez dago inor Udalian hau konpontzeko biderik jarriko dabenik? Zer gertatzen da?

E. ARANTZETA, I. ARANTZABAL ETA A. IRIBAR

OHARRAK

JASO GOIBEKOKALE ETXIAN

Herritik kanpo bizi diran elgetarrok badaukazue GOIBEKOKALE eta *Goienkaria* zeuen etxian jasotzeko aukeria. Gurekin harremanetan jarri besterik ez daukazue. Gure telefonuak 943 78 90 85 eta 943 76 92 71 dira. Bestela, goibekokale@goiena.com helbidera bialdu zeinkie mezua.

Herriko etxe danetara bialtzen dogu GOIBEKOKALE eta *Goienkaria*. Helbidez aldatu badozu, jarri gurekin harremanetan eta gu arduratuko gara astekarixa zure buzoian lagatiaz.

ELKARRIZKETA

EDORTA SILVA/UDALEKO TEKNIKARIXA

“Babes Ofizialeko etxebizitzekiko benetako interesa zeintzuk dauken jakin nahi dogu”

O.E.

Datorren eguean, 19:00etan, Torrealdeko etxebizitzaren gaineko batzarra izango da. Edorta Silva Udaleko teknikariarekin egon gara, batzarrian berba egingo dittuen gaixak zeintzuk izango dien jakittek.

Datorren eguean etxebizitzaren gaineko batzarra izango da Udaletxian. Zer esango dozue han?

Batzarrian, batez be, babes ofizialeko etxebizitzaren inguruko informaziñua emongo dogu. Jentia Babes Ofizialeko etxebizitzekiko daukan interes mailia zenbatekua dan jakin nahi dogu. Benetako interesa zenbat lagunek dauken zehaztuz jua nahi dogu. Horrekin, errealidadia zein dan jakin gura dogu. Hori proiektuari bultzatzeko konstruktorekin eta promotorekin kontau bihar dogunez, eurek hau errealidadia ezagutzeko.

Planeamenduan, preziuen eta epien gaineko informaziñua be emongo dogu batzarrian.

Batzarrera zeintzuk dare deittuta?

Etxebizitzaren inguruko inkestia bete dabenekin egingo dogu



O.E.

batzarra. Lehenago 52 lagunek bete zeben hori inkestiori. Dana dala, inkestia bete ez zabenak be badauka batzarrian parte hartzeko aukeria. Eguen aurretik Udaletxera gerturatu biharko da, beste danek bete zaben inkestia betetzeko.

Torrealden eraikiko diran etxebizitzetatik, zenbat izango dira Babes Ofizialekuak?

Hori, hasieratik, nahiko finkatuta dago. Babes Ofizialekuak 24 etxebizitza inguru izango dira. Horrek 24 etxebizitzok erosteko lain jende dagon jakin gura dogu. Interesa jente gutxiagok izan ezkerro, izan leike 24 biharrian etxebizitza gutxiago egittia.

Zer gauza hartuko dira kontuan horrek Babes Ofizialeko etxiok zeini emon erabakitze-rakuan?

Eusko Jaurlaritzak ataratako dekretu batek Babes Ofizialeko etxebizitzak hartzeko zein baldintza bete bihar diran esaten dau. Base inponibla, diru sarreak... Babes Ofizialeko etxebizitzak egitten diran herri danetan berdiñak dira. Horretaz baldintzotaz gain, Elgetako Udaletxiak bere baldintzak jartzeko aukeria be badauka. Egueneko batzarrian horretaz baldintzotaz be egingo dogu berba.

AUTOEN LASTERTASUNA

Semaforoak eta oinezkoen babesguneak soluzio

O.E.

Diputazioko Zirkulazio teknikariek herriko sarreretan oinezkoen babesguneak eta arkuan eta Salvador kalean semaforoak jartzeko proposamena egin diote Udalari. Espaloiak egiteko lanak eta zebrabideko seinaleen gastuak hartu beharko litzake bere gain Udalak.

Diputazioak eguean egin zion proposamena aproposa iruditu zaio Udalari. Udarako abiadura murrizteko lan gehienak amaituta egoteko asmoa azaldu du.

Herriko lau sarreretan, errepidearen erdian 1,50 eta 1,80 metroko zabalera daukaten oinezkoen babesguneak jarriko dira. Hori autoen lastertasuna txikitzea ekarriko lukete.

HERRI BARRUAN, SEMAFOROAK

Diputazioak egindako proposamenean, herri barruan irtenune gaineko zebrabideak egitea baztertu egin dute. Horien ordeez semaforoak jartzea proposatu dute.

Aldaketa nagusienak arkuan eta Salvador kalean izango dira, noranzko alternatiboa ezarriko da-eta. Arku barruko bi aldeetan espaloia egingo litzake. Kanpoko

bi aldeetan semaforo bana jarriko litzake. Horrela, une berean ezin izango dira bertatik bi ibilgailu igaro. Salvador kalean ere gauza bera egingo dute. Kaleko bi sarreretan semaforoak kokatuko dira. Une bakoitzean noranzko bakarra egongo da zabalik. Semaforoak gorrian egongo dira printzipioz eta sentsoreen bidez jarriko lirateke berde.

OSTATU BATEKETA

- Eguneko menua 800 pza.
- Karta.

Gudarien Bide, ELGETA
Tel: 943 76 80 23

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

TAPEM S.A.

Trokelak eta estanpazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

ERRETRATU ZAHARRA

Bergara futbol taldea Haron, 1956 inguruan

Bergara Kirol Elkarteak urrezko ezteiak beteko ditu aurten. 1952an sortu zen elkarte, eta oraingo asteko erretratuan lehenbiziko sasoi hartako futbol taldea ikus dezakezue. Alberto Zurro emandako datuen arabera, mahoneroak Harora jokatzera joan zireneko argazkia da eskumakoa. Errioxako taldeak Gipuzkoakoekin batera aritzen ziren preferente mailan orduan. Antza denez, Bergaratik zale ugari joan zen Harora taldea animatzera, eta handik bueltan talde batek autobus istripua izan zuen Gasteiz inguruan; zorionez ez zen inor larri zauritu.

Bergarak 0-0 egin zuen Haron. Andres Altzelai genuen Bergarako entrenatzailea. Saillapenaren erdialdean amaitu zuten ligan. Honako hauek agertzen dira, ezkerretik eskumara, Callejak ateratako argazkian.

Zutik: Jabier Zabaleta, Jose Antonio Muñoz, Luis Larrañaga *Kikio*, Jabier Muruamendiaraz *Xapa*, Luis



Mari Egaña, Francisco Arantzabal eta Jabier Ugarte.

Makurtuta: Jose Mari Ugalde, Alberro Zurro, Jose Antonio Arietaleaniz, Esteban Arietaleaniz, Sabas Igartua eta Jose Luis Sanz.

Argazkia: Luis Larrañaga *Kikio*

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Pilotalekua eta Fraiskozuri ingurua

Tradizio handia izan du Bergarako pilotalekuak. 1885ean egin zuten, eta 1966an ekin zioten erabat berritzeari. Betiere, maila handiko pilota jaialdiak izan dira bertan. Fraiskozuri guztiz aldatu da 1960ko hamarkadatik hona. Ezkerreko argazkian gaurko Miguel Altuna Instituta eta Telefonikako eraikina antzeman daitezke. Fraiskozuriko etxebizitzak egiteke ziren.



± 1963

Roman Larrañagak frontoi berria egin aurretik ateratako argazkia (Bergarako Udal Agiritegia). Erretratua 1963 ingurukoa da.



2002

Frontoiaren sarrera. Pilotalekua 1966an berritu zuten. Fraiskozuri plazako 1 eta 8 zenbakietako etxebizitzak ere egin zituzten sasoi hartan.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz
margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

•Seinaleztapena
•Jantziak

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA



Orain, European ere, Bezero desberdinentzat Aukera desberdinak.

Orain, Zure Europako bezeroei egindako bidalketen baldintzak erabaki ditzazkezu. EUROPREMIUM zerbitzuarekin, behar dituzun opzioak aukeratu: Interneten bitartez jarraipena egitea, Arrisku orotarako aseguruia, mugako kudeaketa, jaso izanaren agiria.....Horrela da Euro Express-en paketeria zerbitzua, Guipuzcoana Euro Express eta beste sektoreko enpresa europear liderrak elkartzen dituen paketeria sarea 20 herrialde baina gehiagotan. Galdetu eta ikus ezazu: zure enpresarako bezero bakoitza berezia bada, Euro Express-entzat ere.

943 763 642

Bergaran, San Juan Auzoan



www.guipuzcoana.com

 **GUIPUZCOANA**
EURO EXPRESS